

# Noaia!!



Gero eta herritar gehiago  
Behobia-Donostian



Fatimetu Hamadi sahararra

“Mundua Saharan gertatutakoa  
ikusten ari da, baina ez du ezer egiten”





Aseguru Artekaritza

## Eskatu aurrekontua

- autoak
- etxeak
- bizi-aseguruak
- komunitateak
- merkataritza-dendak
- enpresak
- pentsio planak



Telf: 943 37 11 18 telf/fax: 943 37 19 97 Plaza Uzturre, 8 Lasarte-Oria [pikabea@infonegocio.com](mailto:pikabea@infonegocio.com) J-0078EUS

**GAZTAINAK**

**SARDIN ZAHARRAK**

**BASERRITAR JANTZIAK**

**DANBOLINA**

**ERRAUSKETARIK EZ LURRA BASERRIA HERRIA BIZIRIK**

**ALKARTASUNA**

Usurbilgo baserritarren Kooperatiba [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com), Ugarte Industrialea 12, 943 36 11 14

## Albistea iruditan!!

# Usurbilgo ordezkaritza berria, "Mihiluze" saioan

Garbiñe Elizalde eta Jugatx Agirre dira Gazken usurbildar mihiluzeak. Bi gazteak euskara jolas gisa baliatzen duen ETB-1 telebista kateko programa ezagunean agertu ziren joan den astean. Bi saiotan parte hartu zuten arren, lehenengoan beste lehiakide batzuk kanporatu eta finalera ailegatzear izan ziren Elizalde eta Agirre. Baina saioko azken aurreko proban, programako beteranoak puntu kopuru aldetik nagusi zirela ikusita, ez zuten "Mihiluze"-ren azken txanpan jokatzeko aukerarik izan. 2006an estreinatu zenetik, usurbildar bikote batek baino gehiagok parte hartu du Euskal Telebistako saio ezagunean. Horregatik edo, Jugatx eta Garbiñe, ziur aski ez dira "Mihiluze"-n agertuko diren azken herritarrak izango.



GARBIÑE ELIZALDE ETA JUGATX AGIRRE "MIHILUZE" SAIOAN IZAN DIRA.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Publizitatea: Bea Alda, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiet, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

PATXI SEGUROLA, GOSE GREBAN \_\_\_\_\_ 5. OR.

AIRE KALITATEA HIZPIDE \_\_\_\_\_ 6. OR.

ERLE EGUNA, BEGIBISTAN \_\_\_\_\_ 9. OR.

SAHARAREN ALDEKO ELKARRETARATZEA \_\_\_\_\_ 10. OR.

HURBILAGO TXARTELA NON ESKURATU \_\_\_\_\_ 12. OR.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**  
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**BENTA**  
**TABERNA**

**Oilasko erreak**  
**Ogitartekoak**

San Ignacio 1, behea  
USURBIL 943 36 93 05



LUIS ARANALDE

## “Abba melaku”

**D**uela egun batzuk, Angel Olan misiolaria izendatu zuen Foru Aldundiak aurtengo Gipuzkoako urrezko domina jasotzeko. Lehen jasotakoen artean izen ospetsu batzuk badaude, besteak beste, Andoni Egafia, Joan Mari lekuona, Mikel Laboa, eta abar. Zergatik? Behartsuenen alde egin duen lana “izugarria, efikaza eta goresgarria izan delako”, esan zuen Markel Olanok. Abenduaren 23an jasoko du sari hori.

Hernaniarra da misiolari hau. 1938an jaio zen eta lauzpabost urtez Bankuan lan egin ondoren, 23 urterekin apaiztu zen; Aita-Ama Txurien elkartean sartu zen berehala eta bertan dihardu gaur arte. Elkarte hau Lavigerie kardinal baionarrak sortu zuen XIX. mendean. (Baionak badu beste pertsonaia ospetsu bat ere: René Cassin, bakearen Nobel saria 1968an. Xehetasun hau dakart hemen, izan ere, nire inguruan behintzat, ia inork ez baitaki Nobel sari bat izan dugunik euskaldunok). Etiopian ari da lanean Angel Olan, Wukro lurraldean. “Abba Meleku” deitzen diote, hau da, Jainkoaren aingerua.

Bere lanaren alderdi nagusienak hauek dira:

A/ Heziketa: hauxe izan zen bere lehen eginkizuna: neska-mutikoen heziketa bermatzea eta horretarako sortu zuen St. May ikastetxea. Egun, 350 ikasle dabilta bertan. Besteak beste, eskaintzen dituen alternatibak dira: Egurgintza, argi lanak, pintura, eskultura, jantzigintza...

B/ Laguntzak: era askotakoak: janaria, medikuntza, medikazioa. Laguntza klase hau ematen die batez ere haur gosetuei (4-5 mila neska-mutil), hiesa eta tuberkulosia dutenei, zaharrei... Eta 900 bat umezurtzi.

C/ Mikrokredituak: 100-150 euroko kreditutxoak eskaintzen ditu negozio koxkor batzuk finantza ditzaten. Alargun, prostituta eta alargunei zuzendurik daude batik bat.

Afrikaren egoera triste hori aztertzerakoan, Olanek bi arrazoi aurreratzen ditu: alde batetik, bertako lider politikoaren zintzotasun edo ondradutasun falta. 60-70 urte horietan Afrikak lortu zuen bere independentzia, baina orain, etsai nagusienak buruzagi politikoak dira. Izugarrizko ustelkeria dago (hori bera entzuten nuen Senegalen egon nintzenean). Eta bestetik, arazoa internazionala da. Afrikak produzitzen duenaren prezioa Europak jartzen du.

Mendebaldearen “zigorra” deitu diote Angel Olanari; “bere hitzek egurtu egiten dute gure kontzientzia”, zioen Olanok. Gure sozietatearen gehiegikeria guztiak salatzen saiatzen da.

Duela gutxi egin zioten elkarrizketa batean, oraingo krisiaz analisi zorrotza egiten zuen. Bankuak sartu ziren zuloatik ateratzen laguntzeko dirurik badago, baina ez gose direnei laguntza emateko. Lotsagarria da arazoa sortu dutenei laguntzen zaiela eta ez ondorioak sufrizten ari diren milioika behartsuentzat. “Bankuei eman dizkieten milaka milioi dolar horiek behartsuen artean banatuta, pobrezia drama konponduta”.

Egin zioten azken galdera hau izan zen: “Mundu honek esperantzarik badu ala eszeptizismoan erori behar dugu?”. Erantzuna: “Saiatu egin behar da, borrokatu. Esperantza ere kentzen badigute, gaizki ibiliko gara”.

Nire sermoitxoetan askotan esaten dut, gizaki bakoitzak eginkizun, bokazio, betebeharrak bera duela, sinestedun nahiz sinesgabe izan, hau da: senidetasun mahai eder bat osatzea, bertan eser gaitezen, ez gipuzkoar pribilegiatuok bakarrik, baizik mundu honetan bizi garen 7 mila milioi pertsonok. Eliza ez dela ebanjelikoa esaten dugu askotan. Horra hor salbuespen bikain eta eredugarria.

Mila esker, Angel!

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

## Errausketaren aurkako koordinadorak hondakinen inguruko jardunaldiak antolatu ditu

**E**rrausketa eta osasuna, edota hondakinak bildu edo murriztea hizpide izango dituzten jardunaldiak antolatu ditu Errausketaren Aurkako Herri Plataformen Koordinakundeak datozen asteotarako. Lehenengo saioa, asteazken honetan burutzekoa zen. Errausketa eta osasuna gai nagusitzat hartuta, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean hitzaldia eskaintzekoa zen Julia Sanjosé

medikua eta GEIS (“Grupo de Estudios de la Incineración y Salud”) taldeko kidea.

Beste bi saio burutuko dira hurrengo hamabostaldian, bat Gipuzkoako hiriburuan, Oreretan bestea.

### “Nola murriztu hondakinak?”

**Hizlaria:** Jesus Perez Gomez, Ingurumen Lan eta Osasun Sindikal

Institutuko ordezkaria.

**Azaroak 24 asteazkena**, 19:00etan, Donostiako Koldo Mitxelena.

### “Hondakinen bilketa sistemak”

**Hizlaria:** Ricardo Ortega, San Marko Mankomunitateko lehendakari ohia eta Mikel Izagirre, Urnietako alkatea.

**Abenduak 2 osteguna**, 19:30ean. Oreretako Xenpelarren.



Azaroaren 8an hasi zuen baraualdia

# Patxi Seguirolak gose greban jarraitzen du

**A**zaroaren 30ean frantziar estatuan jarri zioten hamabost urteko espetxe zigorra beteko du Patxi Seguirolak. Espainiar estatura kanporatu eta atxilotua izateko arriskua dagoela eta, gose greban da Aginagakoa joan den azaroaren 8tik. Udalak Seguirolaren egoeraren gertuko jarraipena egitea eskatzen duen mozioa ere onartua du.

Espetxe zigorra bete ostean Patxi Seguirola kanporatua izango balitz, Espainiako poliziek atxilotzeko arriskua dagoela ohartarazi zuen joan den astean Amnistiaren Aldeko Mugimenduak (AAM) berri ematen zuenek. "Atxilotu eta inkomunikatu dezakete, honek suposatzen duen tortura arriskuarekin. Honen aurrean, kanporaketaren aurka eta Euskal Herrian libre eta inolako arriskurik gabe bizitzeko duen eskubidea aldarrikatuz gose grebari ekin zion Patxi azaroaren 8an", adierazi zuten AAM-tik, Seguirolak gose grebari ekin eta egun gutxira.

## ZIGORRA BETEKO DU LASTER

"Frantziar estatuak hartu dezakeen jarreraz ez da fio, hortik gose grebari ekiteko erabakia"

Gaineratzen dutenez, "Frantziako epaitegiek bere aurkako bi estradizio eskaera ukatu dituzte eta ondorioz ezin go lukete Espainiako Estatura kanporatu, horrelako kasuetan jendea konfinatu egiten dute normalean". Aldiz, frantziar



PATXI SEGUIROLA, FRANTZIAKO ESPETXE BATEAN ATERATAKO ERRETRATUAN.

estatuak hartu dezakeen jarreraz Seguirola ez dela fio zehazten dute, hortik gose grebari ekiteko aginagarraren erabakia.

## 1999an atxilotu zuten

Frantziako Poliziak 1999ko irailaren 30ean atxilotu zuen Seguirola. Ordutik, Paris inguruko presondegi desberdinetan izan dute sakabanatuta. Bost urte lehenago, 1994ko ekainean Usurbil eta inguruetan izan ziren atxiloteten ostean, herria utzi zuen.

## Udalbatzaren mozioa

Usurbilgo Udalak Patxi Seguirolaren inguruko mozioa onartu zuen, joan den urria amaierako osoko ohiko bilkuran. Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak aurkeztutako testu hark, Seguirola aske geratu ostean gertatu daitekeenarekiko

kezka agertzen zuen. "Oso litekeena da estatu espainolera espulsatua izatea. Antzeko kasuetan egin dutena kontuan hartuta, seguruenik gure herrikidea polizia espainolaren eskuetan utziko dute eta aukera horrek bereziki kezkatzen gaitu".

Honako lau eskaera proposatzen zituen testuak, udalbatzak onar zitzan: Seguirola espetxetik ateratzen den egunean, jazoeren jarraipen estua egitea; atxilotua izango balitz, Udalak bere egoeraz informatzeko tramite guztiak berehala egitea; kasu horretan, habeas corpus prozedura aplikatzeko berehalako urratsak ematea; eta atxiloketa garaian tratatu txar edo ankerrik jasoko balu, Udalak akusazio partikular gisa aurkeztu eta Seguirolaren babes juridikoa bermatzeko bitartekoak jartzea. Gehiengo osoz onartu zen aipatu mozioa.

**TAXI**  
607 92 87 70  
943 00 44 83  
Angel (24h) USURBIL

Andoni Errazkin  
**Xukin**  
igeltseritza orokorra  
Barne eta kanpoko lanak  
**USURBIL**  
663 08 76 71 • 943 24 34 65

**TXAPELDUN**  
**TABERNA**  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...  
Muna lurrea 2, 943 11 82 53

**Poxpolin**  
**MERTZERIA**  
943 36 82 06  
Zubiaurrenea 3, baxua

## Airearen kalitateari eta kutsadura elektromagnetikoari buruzko informazioa eskainiko du Udalak, datorren astean

**E**gunotan herritarrek Usurbilgo Udalak kaleratutako diptikoak jasotzen ari dira. Udalerriko aire kalitateari eta kutsadura elektromagnetikoari buruzko informazioa dakarte; Udalak orain arte hartu dituen neurrien berri ematen da eta azaroaren 25erako bilerara joatera deitzen ditu herritarrek. Hitzordu horretan, besteak beste, orain arte egindakoari buruzko informazioa eskainiko dute udal ordezkariak.

Usurbildarren artean, bereziki Atxegaldeko biztanleen artean dagoen kezka lotuta, Udalak egunotan herritarrek jasotzen ari diren diptiko bat kaleratu berri du. Bertan, gai honi lotutako datu nagusietako bat aurreratzen dute. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren arabera, 1987-2006 urte artean, Usurbilgo minbizi tasa Gipuzkoakoa baino baxuagoa da; hemen, 100.000 biztanleko 334,9koa da minbizien intzidentzia tasa, Gipuzkoa mailan 353,5koa.

Halere, herritarren artean kezka nabaria da. Horren aurrean, gai honi buruz jarduteko hitzordua finkatu du Udalak, azaroaren 25erako. Baina bilera horretan ez da amaituko Udalak alor honetan burutu nahi duen lana. Aurrerantzean ere neurriak hartzen joateko konpromisoa berresten du, kaleratu berri duen diptikoan adierazten dutenez, "usurbildarren osasuna bermatzeko asmoz". Gaiari buruzko informazio osoa, usurbil.net udal web orrialdean zintzilikatuko dutela ohartarazten da.

### Legegintzaldi osoko lana

Udalak kaleratu berri dituen diptikoe-tan alor honetan, legegintzaldi osoan zehar hartutako neurrien gaineko informazioa eskaintzen da. Gaiaren inguruan egindako jarraipenean nabarmentzekoa da, beste zenbait erakunderekin buruturiko elkarlana; hala nola, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin, Buruntzaldeko udalekin edota EHU-ko kimika fakultatearekin. Urteotan, udale-



IAZKO MAIATZEAN, ETXEBIZITZA GAI AZ HITZ EGITEKO AGERRALDIA EGIN ZUEN ALKATEAK. DATORREN ASTEAN, AIRE KALITATEAZ ARITUKO DA JENDAURREAN.

rikorik zenbait jardueren jarraipena egin da, airearen kalitatea neurtu, udalerriko mapa elektromagnetikoa landu eta azken urteotan herrian eman diren minbizi kasuen gaineko jarraipena egitearekin batera.

### DATU OFIZIALEN FALTAN

"Orain arte bildu dituzten datuen artean, ez da larritzeko moduko emaitzarik jaso"

Pauso hauek emateko arrazoia zein den ere diptiko horretan azaltzen du Usurbilgo Udalak. "Usurbilgo industria, garraio eta jarduerak eragin zuzena dute gure airearen kalitatean. Era berean, inguratzen gaituzten gailuek sortzen duten kutsadura elektromagnetikoa neurtu beharra ikusi dugu", adierazi dute Udaletik.

Duela aste batzuk astekari honetan udaleko alkate Xabier Mikel Errekondok zioenez, gai honi lotuta orain arte bildu dituzten datuen artean, ez dute larritzeko moduko emaitzarik jaso. Edozein kasutan, azken hiruzpalau urteko datu ofizialak falta direla gaineratzen zuen. Udalak eskatuak dizkio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari,

baina Udalak jaso duen erantzunaren arabera, ez dira berehalakoan jakingo. Bizpahiru urte beharko dira, datu ofizial horiek eskuratzeko.

### Azken urteotan egin den lanketa

**2007-10:** udalerriko zenbait jardueren jarraipena, neurri zuzentzaileak abiaraztea eta ekonomia-jardueren ingurumenaren gainerako egoera aztertzen da. Aire kalitatearen kanpainak eta neurketak burutzen dira, Atxegalden, Zubietan, Osinalden eta Txikierrdin.

**2009:** Udalaren eta Osasun Sailaren bilkura, herrian emandako minbizi kasuen balorazioa egiteko.

**2010:** Udalerriko mapa elektromagnetikoaren lanketa.

### Bilera

#### Udarregin izango da

**Eguna:** azaroak 25, osteguna.

**Ordua:** 18:30.

**Tokia:** Udarregi ikastolako barne patioa.

**Deitzailea:** Usurbilgo Udala.

## Garberako garbigunearen ondoren, beste lau egitasmo lantzen ari da Mankomunitatea

**G**arberan duela sei hilabete zabaldu zuten garbiguneak izandako emaitzekin gustura ageri da San Marko Mankomunitatea. Are gehiago, San Marko antzeko beste lau egitasmo gauzatzeko lanetan murgildua dabil. Garbigune berriak 2011rako prest eta zabalik nahi ditu Mankomunitateak.

San Marko Mankomunitateak arrakastatsutzat jo du Garbera merkaltagunean kokatua dagoen garbiguneak, joan den apirilaren 22an zabaldu ostetik, lehen sei hilabete hauetan herritarren artean izan duen harrera. Prentsa ohar bidez jakitera eman dutenez, 11.500 erabiltzaile izan ditu berrera-bilpenera bideratua dagoen guneak. Eguneko ia ehun eta 8.400 kilo hondakin baino gehiago garraiatu dituzte herritarrek apatu garbigunera.

### ERABILERAZ

“Gipuzkoako hiriburuko bizilagunak dira Garberako garbigunea gehien erabili dutenak”

### Hilero, 140.000 kilo eramaten dira Garberara

Beste hainbat datu ere plazaratu ditu San Markok, arrakastaren adierazgarri moduan. Hilero, 140.000 kilo inguru hondakin garraiatu dituzte bertara



GARBERAKO GARBIGUNEAN EGINDAKO AURKEZPENA, AURREKO MARTXOAN.  
APIRILEAN JARRI ZEN MARTXAN.

herritarrek, 370.550 kilo eskonbro (%44,07), 160.960 kilo egur (%19,14) eta 113.110 kilo gailu elektriko (%13,45). Gipuzkoako hiriburuko bizilagunak dira Garberako garbigunea gehien erabili dutenak; erabiltzaileen %66,41 donostiarrak baitziren, 7.664. Ondoren datoz hernaniarrak (%13,85, 1.599), errenteriarak (%8,21, 948), pasaitarrak (%2,34, 270), eta 196 astigarragarak (%1,70).

Joan den apirilaren 22an zabaldu zen garbiguneak izandako harrera ikusita, San Markotik ohartarazi dutenez, Mankomunitatea "beste lau garbigune proiektutan lanean ari da datorren urtean inauguratzeko asmoz".

### Zarautzen, zero zaborren alde

Zarautzen lanean diharduen Zero Zabor taldeak deituta, gaikako bilketaren eta zati organikoa konpostatzearen aldeko dokumentu bat sinatu zuten herriko eragile talde zabal batek duela bi aste.

Alegia, herrian bertan, zero zabor programa garatzea eskatzen dute, alderdi politikoen artean, Ezker Abertzaleak, Eusko Alkartasunak, Ezker Batuak eta Aralarrek; ELA eta LAB sindikatuek; baita, Greenpeace, Gipuzkoa Zero Zabor, Ekologistak Martxan, Arkamurka Natur Taldea, Pagoeta Mendizale Elkarteak y Uztaro Kooperatibak ere.

**ALDAMU**  
KONPONKETAK  
KALE NAQUISIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

**BORDATXO**  
*edaritegia*

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5  
Telf: 943 37 10 42

Josue  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**ARRANDEGIA**  
**PELLO**  
Puntapax Kalea,7  
Tlf 36 21 64  
USURBIL



## Larunbat honetan, Landarbaso abesbatza Salvatore parrokian

**S**anta Zezilia egunaren bueltan, hainbat ekitaldi antolatu ditu Usurbilgo Musika Eskolak. Larunbat arratsaldean, esate baterako, Landarbaso Abesbatza arituko da Salvatore parrokian.

90eko hamarkadaren hasieran osatu zen Landarbaso abesbatza, Errenterian. Talde honetako kideak eskualdeko kontserbatorio ezberdinetatik etorritako abeslariak dira eta musika ezagutza ugari dituzte.

Usurbilen eskainiko duten saioan, Iñaki Tolaretxipik egingo ditu zuzendari lanak.

Azaroaren 20an larunbata, arratsaldeko 17:30ean Salvatore parrokian.



LANDARBASO ABESBATZAKOEN SAIOA ARRATSALDEZ IZANGO DA.

## Odol Emaileen Eguneko bazkarian izena emateko epea ireki dute

**A**zaroaren 8koa, urteko azken Adol-ematea izan zen. Usurbilgo Odol Emaileen elkarteak aditzera eman duenez, "bertaratu ziren guztien artean, 55 izan ziren odola eman zuten herritarak. Eskertu nahi diegu guztiei, eman zutenei, eta ematera etorri baina arrazoi batengatik ematerik izan ez zutenei ere, azaldu diguten borondateagatik".

### Bazkaria, Atxega jauregian

Bestetik, abenduaren 8an ospatuko da Usurbilen Odol Emaileen Eguna. Lehenik meza nagusian elkartuko

dira, Salvatore elizan, eta ondoren otordua Atxega Jatetxean egingo dute.

### Telefonoz eman izena

Odol Emaileen Eguneko otordura joan nahi duenak, izena eman dezala hemen aipatzen diren telefonoetako batera deituz:

Patxi Arruti 615 760 458

Agustina Arizti 943 363 102

Maite Salaverri 943 366 040

Mari Karmen Ayerza 636 124 973

Otordua 30 euro pertsonako.

Bertaratzeko asmoa duenak, mesedez izena eman dezala lehenbailehen.



### "Off-On" saioarekin amaitu zen Kulturaldia

Iragarri bezala, Yolanda Arrieta Iidazlea eta Juantxo Zeberio pianojolea Sutegin izan ziren aurreko larunbatean, "Off-On" ikuskizuna eskaintzen.

Saio honekin amaitu da aurtengo Kulturaldia, NOAUA!k urtero udazken partean antolatzen duen zikloa.

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

**GASA**  
BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Arlztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

**www.noaua.com**

USURBILGO ATARIA



# Salgai jarri dira

## Erle Eguneko bazkarirako txartelak

**G**ozotasuna dario urtean behin ospatzen den azoka honi. Gozotasuna salgai dauden produktuetan, gozotasuna giroan. Erleek egindako lanaren emaitza hori baita, garrantzitsua, azpimarragarria bezain gozoa. Erlearekiko izan ohi den irudia iraultzen darama, hamarkada batetik gora Erle Lagunak taldeak. Hamabigarren Erle Eguna antolatu dute azaroaren 28rako.

Zer ikusia eta eresia izango da azaroko azken igandean. Nahi duenak sukaldari onena dela erakusteko aukera ere izango du. Eta gose denak, ahoa gozatzekoa. Poltsikoan zulorik ez duenak aldiz, enkantera begira egongo da. Hamar egun eskas falta dira, azaroaren 28an ospatuko den Erle Egunerako. Bi eskenatoki nagusi izango ditu jaialdiak: frontoia eta Dema plaza batetik, salmenta postu, erakusketa eta ekitaldi nagusiekin, eta haurrei zuzendutako txokoan bihurtuko da bestalde, Askatasuna plaza.

### Ezti pottoak eta postreak, lehian

Zeintzuk izango ote dira epaimahaiak hautatutako ezti potto onenak? Galderaren erantzuna, erabakiaren berri jaialdiaren amaieran ezagutzera emango du, urtero moduan, hamabigarren edizio honetan ere aurpegi ezagunez osatua egongo den epaimahaiak. Sukaldariak, kritikiko gastronomikoak, kirolariak edota abeslariak ikusi ohi dira epaile lanetan, aurtan gertatuko den moduan.

Ohi bezala, Euskal Herri mailakoa izango den ezti txapelketan, bi lehia modalitate bereiziko dira; batetik, lore bakarrek, bestetik lore anitza. Ezti potto onenak gainera, enkantean jarriko dira. Ezti potto sarituak etxera nork eramango ote dituen eta zenbat diruren truke, horretarako hilaren 28ra arte itxaron beharko da.

Ezti zein gozogintzako lehiaketetan parte hartu nahi dutenentzat, antolatzailen oharra. Goizeko 9:00etatik 10:00etara frontoian kokatuko den



11:00ETAN HASIKO DA AZOKA MODUKOA FRONTOIAN.

harrera mahaian utzi beharko dira lehia-ketara aurkeztuko diren gaiak.

kari eder baten bueltan emango zaio amaiera, XII. Erle Egunari.

### ASKATASUNA PLAZAN

“3-11 urte artekoei zuzendutako marrazki lehiaketa prestatu dute”

Baina ez dira lehian jarriko diren jaki bakarrik izango. Etxean egindako postre gozoena norena den ere erabaki beharko du epaimahaiak. Postre hauek baldintza bakarra bete beharko dute; osagaien artean, ezta beharko du. Erle Egunari lotuta bestalde, haur eta gazte-txoen parte hartzea ere bultzatzen dute antolatzailak.

### Margo erakusketa, Askatasuna plazan

Aurtan ere, 3-11 urte artekoei zuzendutako marrazki lehiaketa prestatu dute. Artelanen emaitza, Askatasuna plazan ikusi ahal izango da. Gune berean, eta jaialdiaren osagai gisa, ezin ahaztu pailazoak ere, aurtan, “Xalto ta Korri” Askatasuna plazan izango dira, ezta jogurtarekin banatzen. Artean, goizean zehar frontoian bi bertsolarien parte hartzea ere iragarria dute antolatzailak.

Txapelketa guztietako sari banaketa; ezti, gozogintza eta marrazkien txapelketena, bazkalaurretik burutuko da frontoian. Orduan ezagutuko dira sari-tuak nortzuk diren. Sagardotegiko baz-

### Goiz pasa gozorako hitzorduak

**9:00-10:00** Ezti eta gozogintzako bilketa.

**11:00-14:00** Erakusketa (erleak, argizaria, panelak...), postuetako salmentak, musika, bertsolariak, marrazki lehiaketa...

**13:30** Erleek beraiek ekarritako sari banaketa.

Ezti lehiaketako, gozogintzako eta marrazki lehiaketetako irabazleak.

**14:30** Aginaga sagardotegian bazkaria.

### Bazkaria, Aginaga sagardotegian

**E**rle Eguna borobiltzeko bazkaria antolatu dute Aginaga sagardotegian. Menua honakoa izango da: bakailao tortilla, bakailaoa piperrekin, idi txuleta entsaladarekin, intxaurrak, gazta eta menbrilloa, kafea, sagardoa, ardo gorria, ardo beltza eta xanpaina. Prezioa: 24,50 euro. Txartelak aldeztu aurretik erosi daitezke, Txiriboga eta Irrati tabernetan. Egunean bertan ere salgai izango dira.

## Fatimetu Hamadi, Usurbilen bizi den sahararra

# “Sahara aske eta guretzat izatea nahi dugu”

**M**arokoarrek egunotan sahararren aurkako eraso-aldia hasi dute. Baina zoritxarrez ez da kontu berria, besteak beste, Fatimetu Hamadi sahararrarentzat. Duela bost urtetik Usurbilen bizi da. Kezkatuta agertzen da lerrootan, Saharan bizi duten egoeragatik. Ez du konfiantza handirik burutzen ari diren negoziazioen inguruan. Etorkizunera begira aldiz, ez du esperantza galtzen, goizago edo beranduago Sahara aske izango dela sinesten baitu.

N. Ezjakintasuna nagusi den honetan, zeintzuk dira dituzun azken berriak?

Fatimetu Hamadi. Ez dugu ikusten han zer gertatzen ari den, eta inork ez du informatzen. Saharan bizi diren senitartekoak aipatu digutenez, hildako eta atxilotu asko daude. Beste askok basamortura ihes egin dute. Inork ez daki ezer beraietaz. Sufrimendu asko dago eta inork ez daki zer gertatzen ari den. Marokoarrek inori ez diete sartzen uzten eta nahi dutena egiten ari dira. Asko sufritzen ari dira, etxez etxe sartzen ari dira, haur, gazte eta emakumeen bila.

N. Egunotan komunikatzerik izan duzue senitartekoekin?

F. H. Hara deitzen badut ez dut erantzunik jasotzen. Haiek noizean behin deitu eta informatzen digute, baina komunikazioa berehala eteten da. Hitz batzuk esaten dizkigute beldur handiz, baina gertatzen ari dena ezin dute argitu. Adibidez, azken aldiz deitu zigutenean, esan ziguten kanpamenduko eraso-aldia hasi ostean, 13 gazte hilda aurkitu dituztela ur tanke batean. Beren senitartekoek kanpamenduko erasoaldiaren ostean desagertutzat joak zituzten, baina azkenean bertan aurkitu dituzte. Senitartekoek ez dute informazio handirik. Dakitena da jendea sufritzen ari dela. Marokoar ejertzitoarekin batera, kolonoak ere parte hartzen ari dira, jendea hiltzen laguntzen. Jendeak beldur



SAHARARRA DA FATIMETU HAMADI BAINA USURBILEN BIZI DA  
DUELA BOST URTETIK HONA.

handia du, ezin dute kalera atera, ezin dute bizitza normaltasunez bizi. Mundu guztia haien aurka dute. Egoera okertzen doa gainera.

### FATIMETU HAMADI

“Duela denbora askotik,  
egiten ari dira orain  
egiten ari direna”

N. Maroko gertatzen ari dena ezkutatu nahian dabil. Zeure ikuspegitik, zergatik?

F. H. Duela denbora askotik, egiten ari dira orain egiten ari direna. Egindakoa beti ezkutatu dute. Sahara eta Marokoren arteko mugara doan edonori ez diote galdetzen uzten, ez diote Saharan bizi direnekin nahasten uzten. Baina orain, jendea manifestatzen ari denez, ezin dute ezkutatu lehen bezala. Lehen, ezkututzen zuten, eta ez zuten inor sartzen uzten. Mundua orain irekiagoa denez, eta Internet eta bestelako bideetatik ikus daiteke zerbait, ezin dute ezkutatu nahiz eta haiek horretan saiatu. Gainera, hori egiten ari dira eurek Saharatik ez dutelako irten nahi.

Marokoarrek Saharan okupatu eta bertan bizi nahi dute, Sahara lurralde oso aberatsa baita. Marokoarrak zergatik ari dira negoziatzen Fronte Polisarioarekin? Maroko Maroko baita, eta Sahara, Sahara. Beraiek badakite Sahara okupatzen ari direla, eta beti negoziazioak ukatzen ari dira, baita Saharari askatasuna ematea ere, Sahara oso aberatsa baita. Sahararrak ez dituzte bertan nahi.

### Informazio nahasia heltzen da handik

Usurbilgo Elkartasun Taldeko ordezkari Jose Piñasek berri eman duenez, informazio nahasiak heltzen ari dira erasotutako inguruetatik. “Fronte Polisarioaren arabera, 2.000 atxilotutik gora, 4.500 zauritu baino gehiago, eta hamarnaka hildako daude. Lekukoek diotenez, hamarnaka hildako daude basamortuan, hobi komunak agertu dira. Eta atxiloketa guneak daude komisariatetan, eskoletan eta Aaiungo futbol zelai bat ere atxilotuak bertara eramateko egokitu dute. Bestalde, polizia etxez etxe miatzen ari da”.



# “Angustia handiarekin bizi dut egoera hau”

NOAUA! Usurbilen bizita, Saharatik hain urrun. Nola bizi dituzu uneok eta zure ikuspegitik, sahararren aurkako erasoaldiaren aurrean nola erantzuten ari da nazioartea?

**Fatimetu Hamadi.** Nik pertsonalki asko sufritzen dut gai honengatik, inork baino gehiago baitakit zer gertatzen ari den Saharan. Sahararrak gerra honengatik sufritzen dugu, duela denbora askotik, kanpamenduetan daudenak, eta Maroko agintepean daudenak. Gerragatik sufritu dugu, gure senitarte-koak galdu ditugu Saharan, alde guztietan, gune okupatueta, kanpamenduetan. Angustia handiarekin bizi dut egoera hau. Badakit zer gertatzen den, eta marokoarrek nola tratatzen duten Sahara.

## FATIMETU HAMADI

“Negoziazio hauetan ez dut konfiantza handirik, denbora asko daramagu egoera berean gerra gelditu ostetik”

Asko sufritzen dut bestalde, mundu osoak ez baitaki zer gertatzen ari den Saharan. Herrialde askok ez dute jakin nahi zer gertatzen den Saharan, nahi badute jakiteko aukera baitute. Baina begiak itxita dituzte, ez dute ezer jakin nahi. Batez ere espainiarrek, Sahararen historia osoa baitakite, irten zirenetik gaur egunera. Nik badakit askorik ezin dutela egin, saldu baitute eta kito. Baina gutxienez, informatu daitezke. Hitz egin beste leku batzuetan politikari eta diplomatikoekin. Horrek molestatzeko nau. Jendea hiltzen ari direla, zerbait egin nahi badute, beste leku batzuetan egin dute. Baina mandatariek interesen arabera jokatzeko dute. Marokorekin dituzten interesegatik, Saharan gertatzen ari denaz ez dute ezer jakin nahi.

**N. Egunotan nabari den agintari askoren isiltasuna horren lekuko?**

**F. H.** Isilik daude denak, ez dute ezer egin nahi. Denak isilik daude, ez dute ezer jakin nahi. Beraiek akaso interes handiagoak dituzte eta Saharan.



FATIMETU HAMADI SAHARARRAK BERE HERRIKO BANDERA ZINTZILIKATU ZUEN UDALETXKO BALKOIAN. ONDOREN ELKARRETARATZEA EGIN ZEN.

Sahararrak derrigortuta gaude gure herrialdea askatzera. Duela denbora askotik gabilta horretan. Guk baino gehiago inork ez du nahi Sahara askatzera. Baina gutxienez lagundu eta egia esan behar dute.

**N. Sahararren aurkako erasoaldia New Yorken Maroko eta Fronte Polisarioaren arteko negoziazioak has-tearekin batera heldu da?**

**F. H.** Aaiun ondoko kanpamenduak bi hilabete daramatza muntatuta. Eta inoiz ez diote eraso egin edota bertako bizilagunei ez diete gune hura utzi behar zutenik esan. Isilik egon ziren, negoziazio hau hasi zen arte, Fronte Polisarioa negoziazioa uztera behartzeko. Fronte Polisarioa New Yorkera gai honi buruz hitz egitera joan ez zedin. Horregatik egin dute hau. Fronte Polisarioko ordezkariak halere inteligenteagoak izan dira, eta negoziatzera joan dira. Marokoarrek manifestazioa eta negoziazioa geldiarazi nahi zuten, baina ez dute ezer lortu. Orain munduak zerbait jakin nahi izan edo ez, gure ahotsa mundu guztira ailegatu da. Gatazka honentzat konponbidea izatea espero dut.

**N. Nola ikusten duzu etorkizuna?**

**F. H.** Guk geure lurraldea gobernatu nahi dugu. Guk geure lurraldean bizi nahi dugu. Negoziazio hauetan ez dut konfiantza handirik, denbora asko baitaramagu egoera berean gerra gelditu ostetik. Marokok nahi duen horretan gainerakoek laguntzen diote. Baina esperantza handia dut, egunen batean Sahara aske geldituko da.

## Ezohiko udalbatzarra, sahararren alde

**U**surbilgo Elkartasun Taldeak mozioa aurkeztu eta presazko ezohiko osoko bilkuran aho batez onartu zuten udal ordezkariak joan den larunbat eguerdian. Besteak beste, Marokoko armada, polizia eta agintariak gizateriaren aurkako krimen gisa definitzen dituzten hildako, zauritu, desagertu, edota miaketen erantzule direla salatzen du eta honenbestez, “erantzule materialak zein intelektualak zigor ditzala eskatzera” nahi dute. Mozioak sahararrei eta Fronte Polisarioko ordezkariak elkartasuna adierazi eta deskolonizazio prozesua ixtearekin batera, duten autodeterminazio eskubidea gauzatzera eskatzen du.

Xabier Mikel Errekondo alkateak kolonizazioa mende honetan ere ematen dela gogorarazten zuen, Sahara dela horren adibideetako bat. Marokoren jarreraren helburua Sahara desagertzea zela gaineratzearekin batera.

Aralarretik Lontxo Zubiriak Sahararrek independentzia lortzeko duten beharra azpimarratu zuen, bestela aberastasun guztiak ustatuko baitzikiere.

EAJ-PNVtik Iñaki Illarramendik Maroko burutzen ari den erasoaldia salatu zuen, sahararrei elkartasuna adierazi eta mozioko edukiarekin bat egin zuen.

# Hurbilago Txartela

## Elkarteko kide diren 44 establezimendutan eskatu daiteke

**H**urbilago elkarteko bazkide diren establezimenduetan erosketak egin ohi dituztenek, txartel berri bat erabiltzeko aukera izango dute abendutik aurrera. Ordainketak erraztu eta puntuen sistema baliatuta, deskontuak eta sariak irabazteko aukera izango da, Hurbilago txartelarekin.

Hasteko gainera, abendu osoan zehar Hurbilago elkarteko bazkide diren establezimenduren batean erosketak egiten dituzten bezeroei %5eko deskontua aplikatuko zaie. Modu honetan, Hurbilago elkarteak bertako kide diren berrogeitik gora establezimendu promozionatu eta bezeroak fidelizatu nahi ditu. Hurbilago elkarteak eta Usurbilgo Udalak herriko merkataritza eta ostalaritza alorra indartu eta biziberritzeko abian duten planeko ekintzetako bat da.

### Esku orria eskuragarri

Txartela doan eskuratu daiteke. Horretarako, Hurbilago Elkarteko bazkide diren establezimenduetako batera joan besterik ez dago. Establezimenduen zerrenda orrialde honetan bertan ageri da.



ARGAZKIAN, HURBILAGO ELKARTEKO KIDEAK.

Aipatu guneotan, datu pertsonalekin bete beharreko eskuorri bat dago. Esku orria bete eta hartutako lekura itzuli. Handik gutxira, eskatu duenak etxean jasoko du Hurbilago Txartela, doan.

### Deskontuak eta sariak

Txartelarekin erosketak ordaindu ahal izango dira, une horretan edo beranduego, erosketen ordainketa hiru hilabetez atzeratzeko aukera eskainiko baitu

Hurbilagoko txartelak, bankuz aldatu beharrik izan gabe. Baina ez hori bakarrik. Gainera, puntuen sistemaren bidez, txartela zenbat eta gehiago erabili, erosketetan deskontuak eta sariak lortzeko aukera handiagoak izango dira. Egitasmoa, Hurbilago Elkarteak eta Nafarroako Rural Kutxak bultzatu eta Usurbilgo Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak lagundu dute.

## Hurbilagoko establezimenduotan eskatu daiteke txartela

### Arropa dendak eta mertzeriak

MARIJE jantxidenda  
LURDA mertzeria  
PAUMA haur jantziak  
POXPOLIN mertzeria

### Elikadura eta janari dendak

AIZPURUA okindegia  
ALKARTASUNA nekazal kooperatiba  
ARRUTI harategia  
ALIPROX supermerkatua  
TXAPARTEGI harategia  
KORO ESNAOLA supermerkatua  
MIKEL arraindegia  
LA HUERTA DEL PAIS fruta denda  
LAGE GOXO okindegia  
OTAR GOXO janari denda  
PELLO arrandegia  
TXALAKA fruta denda

### Burdindegia eta etxerako tresneria

ARGILAN elektrodomestikoak  
JUANTXO burdindegia

### Ileapaindegia eta estetika

BIXEN ileapaindegia  
ELEXPE ileapaindegia  
ENAR estetika  
INTZA ileapaindegia  
LOLI LIZARRALDE ileapaindegia  
N.I ileapaindegia

### Osasuna

IRATZE natur denda  
ITURRALDE botika  
USURBIL optika

### Estankoa, liburuak, osagarriak...

AGUIRREZABAL estankoa  
ESNAOLA lurrindegia

LAUOK liburu denda  
LIZARDI liburu denda  
URTINEA lorategia

### Ostalaritza

AGINAGA sagardotegia  
ARTZABAL taberna  
ATXEGA JAUREGIA jatetxea  
BORDATXO taberna  
KAFFA kafetegi-gozotegia  
OLARRONDO jatetxea  
SALTXIPI jatetxea  
SAIZAR sagardotegia  
TXAPELDUN taberna  
TXIRIBOGA taberna

### Zerbitzuak

ALDAMU oinetako konponketak  
MUR errotuloak



# Chillida-Lekun izan dira Aginagako Herri Eskolako ikasleak

**K**aixo! Aginagako Herri Eskolako ikasleak gara. Azaroaren 11n osteguna, Hernaniko Chillida-Leku museora joan ginen. Eskultura asko ikusi genituen eta Chillidaren firma pila bat aurkitu genituen.

Gero Haizearen Orrazira joan ginen mikrobusez, baina aurreko eguneko olatuengatik ez ziguten pasatzen utzi. Eta orduan, Donostiako Antiguako frontoian bazkaldu genuen.

Eta bazkaldu ondoren parkean jolastu ginen izkutaketan. Mikrobusean Aginagara itzuli bitartean, ikusi-makusian jolastu genuen.

Ederra egun pasa egin genuena!

Aginagako Herri Eskolako ikasleak eta irakasleak.



AGINAGAKO HERRI ESKOLAKO IKASLE ETA IRAKASLEEK CHILLIDA-LEKURA EGINDAKO IRTEERA, JOAN DEN AZAROAREN 11N.

## Datorren astean, kontzertua Akerra gaztetxean

**A**kerra gaztetxea martxan da. Urriaren 22an hasi ziren berriz ere kontzertuak egiten. Datorren astean, Odolaren Mintzoa (Usurbil), Black Absente eta Citizen Kane (Orio) taldeak izango dira Txokoaldeko gaztetxean arituko diren taldeak. Sarrera doan izango da. Azaroaren 26an ostirala, 23:00etatik aurrera.



CITIZEN KANE.



ODOLAREN MINTZOA.

**Zuen  
publizitatea  
hemen**

© 943 360 321  
publizitatea@noaua.com

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. © 943 362 725

**ERRAZKIN  
Igeltzentza S.L.**

Tel.: 649 435 470  
Faxa: 943 372 679

K./Nagusia 47. Behea A.  
20170 USURBIL

# Usurbil FT, 2010-2011 denboraldia martxan



